


JABIER ZABALETA PRESO POLITIKOARI ELKARRIZKETA*

“Benetako pakea Euskalerrria bilduko duen instituzio baten alde lan eginda etorriko da”

■ Ez du uste Lizarrak huts egin duenik “herriari ez diotelako bide hori jorratzeko aukerarik eman ■ “Hurrengo su etena aurrekoa bezain kementsua eta edukiz betea izango da”.



Baldokudaletxean, zinegotzi kargua hartzen izan zenean.

JABIER Zabaleta Baldok 26 urte daramatza Hernanitik kanpora. Horietatik 11, preso, ETA-ko zuzendaritzako kide izateaz akusatu eta Frantzian atxilotu zutenetik.

■ **KRONIKA: duela urte eta erdi izan zinen Hernanin, zer sentitu zenuen?**

BALDO: Herrira itzultzeak poz haundia eman zidan; eta aldi berean, tristura pixka bat ere bai, banekielako ordu gutxi-egonaldia izango zela.

■ **Jende askok ez ditu azken urte eta erdiko mugimendu politikoak ulertu...**

Jende askok ez dituela azken mugimendu politikoak ulertu? Ameto. Baina, saiatu al dira, edo hobeki esanda, saiatu al gara? Ezezkoan nago ni. Hor egon ginen zain Lizarra-Garazik erditu behar zigun Euskal Herri zoriotsu horri begira, dena eginda balego bezala, konturatu gabe denon esku hartzea ezinbesteko zela eta dela gure

herriaren geroa ziurtatzeko.

■ **Batzuk askatasunerako konpromisoa eskatzen dute aurrena, besteek pakerakoa?** Bai, pakea gauza ederra da eskubide eta askatasunean oinarritua dagoenean. Aldiz, pakea soilik, arazoak bere horretan utzita, bide motzeko pakea da. Eta hori jakin bada-kigu, batzuk eta besteak.

■ **Eta bitartean, Oreja lehendakari?** Ibarretxek bezala Espainiako Konstituzioa izango du euskarri eta Vascongadas mugarri.

■ **Ez ote dio aizkorak sugeari lepoa moztu?** Ez dago arriskurik, aizkoraka-

dak ez daude sugeari zuzen-duak-eta.

■ **Izango al da, epe laburrean, beste su etenik? Eta izan-ten bada, sortuko ote du aurrekoak adinako indarrik?** Epe laburrean su-etenik izango den ala ez esatera ez naiz ausartzen. Bai, ordea, lehen bezain indartsua, kementsua eta edukiaz beteta izango dela ausartzen naiz esatera, eta are gehiago ziurtasun osoa daukat.

■ **Haritzak ez du balio, Lizarrak huts egin badu, zer behar da?**

Lizarrak huts egin duenik ez dut uste nik. Batez ere, herriari ez diotelako inongo aukerarik eman bide hori jorratzeko. Beraz, garbi dago zer egin behar den: Euskalherri osoa bilduko duen instituzio baten alde lan egin. Eta hortik etorriko da benetako pakea.

■ **Hernanin ustez ideologikoki oso konprometitutako askok erderaz egiten du...** Hernanin gaitz hori oso errotua dago, aspaldikoa baita. Eta ez ideologikoki konprometituak dauden aldetik, baizik eta euskaldun peto petoen aldetik ere bai. Zoritxarrez, azken urte hauetan jarrera txar hori ez da batere aldatu.

■ **Pentsatu al duzu libratzen zaituzten lehen egunean zer egin?** Libratuko nauten eguna urruti dago oso egun horretan zer egingo dudan pentsatzen hasteko. □

*Elkarriketa hau duela bi hilabete bidali eta aste honetan jasoa da.

Jai estremeñoa gaur Urbietan

■ Ekitaldiak egun osoan dira 10:00-etan hasita.

20 kilo Botika eta arropa sahararentzat

■ Kanpamenduetako harrera onak eta bizipozak harrituta utzi du Hernaniko taldea.



Saharako umeak CD Hernaniko arropak jantzita.

HERNANITIK Frente Polisarioaren kanpamenduetara joan den espedizioa itzuli da. Eguzki plaka eraman nahi zituzten, baina, horretarako behar zen milioi erdirik bildu ez eta jaso-

tako 175.000 Pta-kin botikak eramatea erabaki zuten. Taldeak eskerrak eman nahi dizkie lagundutako denei: CDH, Ttarla, Sagastiberri farmazia eta udalari. □

Kilometro berezia



12GARREN Korrika gaur bukatuko da Baionan. Hernanin jende asko izan zuen, euria eginagatik. Herri sarreran, Zin-

koenea betea zegoen eta Uru-mea osoan jaso zuen hernaniarren babesa. Aek-k eskerrak eman dizkie guztiei. □



ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506



IPARRA
SUKALDE ALTZARIAK

Zikuñaga 61 - Ibarluze - 7. lokala
Tel: 943 556760 - Faxa: 943 331975
20120 HERNANI

Hernani Institutua
A. Iturriaga - K. Labaka

Sta. Barbara z/g. Tel 943 55 11 88
K.Labaka 7. Tel 943 55 19 58

ESKAINTZA

BATXILERGOAK

- Natur eta Osasun Zientziak
- Humanitate eta Gizarte Zientziak
- Teknologikoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak
- Mekanizazioa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Informazio eta merkaturatze turistikoa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Kultur eta gizarte animazioa
- Instalazio elektroteknikoak
- Alojamendua

Hiru kiosko lehiaketa publikora

- Victor Hugokoa, Plaza Berrikoa eta Ezkiagakoa atera dira lehiaketara
- Hilabeteko epea dago eskariak egiteko.



Victor Hugo kaleko kioskoa itxita dago aspaldian.

HERNANIKO udalak Victor Hugo, Plaza Berria eta Ezkiagako kioskoak lehiaketa publikora atera ditu. Hirurak ere, orain itxiak daude. Lehiaketan lehentasuna dute honako hiru baldintza hauek betetzen dituztenak:

- 1) Pentsiorik ez duen elbarria izatea, edo jasota ere soldata minimotik gorakoa ez izatea.
- 2) Orain dela bi urte baino lehen egotea Hernanin bizitzen.
- 3) Lan fijoerik ez izatea.

Lehiaketan, elkarrizketa pertsonala, egoera ekonomikoa eta esperientzia baloratuko dira gehiena.

Azkenik, kontratua hiru urtetarako da eta beste bira luzatu litekeena. □

JASOTA BEZALA

EREÑOTZUKO ETXEBIZITZAK

1999ko irailetik hona gobernu taldeak gestio ugari egin ditu Ereñotzuko etxebizitzaren urteetako arazoa desblokeatzeko. Izan ere, blokeoaren arrazoi nagusia orube residentzialetik errepide nagusirako enlazea edo lotura zen. Aurreko legealdian arazo honi emandako soluziobidea ez zen bideragarria, zeren eta Villa Airosa bota ztea supozatzen baitzuen.

Beraz, konpondu beharreko lehen arazoa hau izanik, orain Udalak proposamen bat egin du Diputazioko Errepide sailaren oneritzia lortuz. Ondoren, orube residentzialaren jabeekin negoziaketak hasi ziren bi aldeentzako onuragarria litzatekeen akordioa lortzearen. Hainbat gestio egin ondoren, 2001eko martxoaren 29ko Osoko Bilkuran onartutzat

jotzen da aipatu hitzarmena.

Hitzarnem honen arabera, Udalak orube bat lortzen du, bertan babes ofizialeko 12 etxebizitza egiteko aukera ematen duena. Etxebizitza hauek bertako biztanleentzat izango dira, auzotarren aspaldiko aldarrikapena betetz.

EH-ko zinegotzi taldea

AKERREGIKO POLIGONO-ARENTZAT IRTENBIDEA

Martxoaren 29an Udalak egindako osoko bilkuran Diputatu Kontseiluak proposatu duen permuta-hitzarmena onartu zuen. Akerregin Hego Sahiesbidearen obren ondorioz afektatutako lur-jabeek azkenean hauen arazoentzako soluziobidea aurkitu dute.

Egungo gobernu taldearen ekimenez eta Diputazioaren onarpena jaso ondoren, akordio honekin

irtenbidea ematen zaio erakunde foralak eta Akerregi poligonoak zuten arazo larri honi. Gai hau aurreko gobernu taldeak konpontzeko konpromisoa hartu zuen lurren doako zesio baten bidez baina porrot egin zuen. Orain lortutako akordioa lurren permutan datza eta honek bertako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala eskatzen duenez, Udalak aspaldidanik zintzilik zeuden beste gai batzuk bideratzeko aprobetxatuko du, tartean Akerregiko poligonoko zabalkuntza, kamioien aparkalekua eta suhiltzaileen eskualdeko parkea eraikitzeko aukera ahalbidetuko du. Operazio honen bideragarritasuna aztertzeko Foru Diputazioko sail desberdinekin hitz egin da eta baita GUITRANS eta SINTRAGI EKARTEekin ere.

EH-ko zinegotzi taldea

BERTSOLARITZA

Hiru 'Irauliotar' Orixeko txapelaren bila

- Zelaia, Agirre eta Legarreta arituko dira, Agirreazaldegi, Munduate eta Jimenezekin batera
- 11:00etan.

Irun literatura Sarian izena emateko epea zabalik da

- Poesia eta elaberria, euskaraz eta gaztelaniaz
- Sariak: 1.700.000 Pta elaberria eta 1.200.000 poesia.

IRUN Hiriko Kutxa Literatur Sariko deia atera da. Sariketa hau Gipuzkoan egiten den garrantzitsuenetakoa da. Poesia-arentzat eta nobelarentzat daude sariak, euskaraz eta gaztelaniazko lanentzat. Poesian guxtienez 800 bertsoko lana aurkeztu behar da; gaia, neurria

eta errina libreak dira. Elaberrian, berriz, gutxienez 125 orriko lana aurkeztu behar da.

Lanak ekainaren 15erako aurkeztu behar dira, honako helbide honetara: "2001eko Irun Hiriko Kutxa Literatur Sariak" GUDAT, Illarra bidea, 4, 20018, Donostia. □

HITZ BITAN

✓ ESKUBALOIA

Hernaniko taldeak Play Off-ak hemen jokatzea eskatu du. Lehen mailara igotzeko Play Off-ak Hernanin jokatzea eskatu du klubak. Talde gehiago ere badira eskatu dutenak, eta federazioko erantzunaren zain egon behar dute. Hala ere, zenbait jokalarik Kronikari esan dionenez, ez litzaienke ajolako beste probintzia batean jokatzea, taldearekin urrutira joateko aukera asko ez baitute izaten. □

AGENDA	❖ ZINEA BITERIN	❖ MUSIKA
	El pequeño vampiro 17:00etan No te fallaré 19:30etan	Irailerako 6 Oialumen, 20:00etan.

ZERBITZUAK	
☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
▶ Taxiak: 943 550093 ▶ Udaltzaingoa: 943 333288 ▶ DYA: 943 464622 ▶ Autobusak 943 556662 ▶ Anbulatorioa: 943 557750 ▶ Jokalari anonimoak 943 331103	▶ Egunez: Correa Antziola 44 ☎ 943 551933 ▶ Gaez: Acha-Orbea Lasarte, Hipodromo etorbidea 6 ☎ 943 3634

OSTEGUNETAN ZATOZ 'BEZERO TXARTELAREKIN'

Eskaintza bereziak aurkituko dituzu

AITOR AITOR PEÑA FRUTTATEGIA
Larramendi 5, Tel. 943 33 31 03
HERNANI

ARREGI
ALTZARIAK
Elkano 10-12 . Tel. 943 55 14 46
HERNANI

ARRKJ
Eskulanak/Arte Ederrak
Jkastaroak
Tlf.- 943 55 72 56
Elkano, 6. HERNANI

uota gijamir, marmot/jowe alpi
ne pol fad/pad/pad
patek mendian alkat
ferrino/big pack
atzieta 41
(943)33 30 58

Kortsetegi - Mihisedenda
Haixea
Tlf.- 943 55 55 19
Kardaberaz 2 - 20120 HERNANI

PLAYTEX CACHAREL INTIMA CHERRI GEMMA
Hoki
LATSUNBE 4 - TEL. 943 33 16 87
HERNANI

IZASKYN KIROLAK
Elkano 9 - Tel. 943 556 055
20120 HERNANI

JAIONE
Kongelatuak
ELKANO 1 - Tlf. 943 55 07 8
20120 HERNANI

FOTOGRAFIA
Jose J. Etxarri
Marisol
Gudarien Plaza. 7 - Atzieta 17
Tel. 943 55 26 45 - HERNANI

PRODUTO NATURAL
MASUSTA
EKODENDA
Kardaberaz 43 - 943 55 57 10
HERNANI

MINER
JANARIDENDA
Nagusia 49
20120 HERNANI
943 55 01 36

LIBURUDENDA - PAPERTEGIA
LEOKADISTI
Urbietan etorb. 6 / Tel.943 55 12 29
20120 HERNANI

JANTZIDENDA
LOHER
EMAKUME ETA GIZONEZKOENTZAT
Elkano 1 - Tel. 943 555 003 - Hernani

SUMINISTROS ELECTRICOS
HERNANI
P. CARDABERAZ, 49-TEL. 557090
HERNANI
Kardaberaz 49 - Tel.943 55 70 90